



Inbertsio Fondoa

BERMATU GABEKO
ERRENTAGARRITASUNA*

UTB: %1,47

Kutxabank EF Horizonte 23 IF

*Ez dago bermatutako gutxieneko errendimendurik.
Inbertsio osoa edo zati bat gal dezakezu (egoera txarra).

Inbertsio Fondoa

Kutxabank EF Horizonte 23 IF

Poliki-poliki, baina etengabe inbertitu.

Osaketa eta prozedura

Kutxabank EF Horizonte 23 IF fondoak batez ere Espainiako zor publikoan inbertitzen du. Oso aukera erakargarria da errentagarritasun interesgarriak lortzeko epe laburragoetan.

Kutxabank Horizonte Fondoa, hasierako inbertsioaren %100 eta %2,79ko errentagarritasuna (bermatu gabea) lortzeko sortu da, kapitala mugaegunera arte eutsiz gero. 2024ko abenduaren 13ra arte egindako eta mugaegunera arte eutsitako kontratazioetan bermatu gabeko %1,47ko UTB izango da. Lortutako UTB harpidetza egiten den unearan araberakoa izango da.

Fondo honek ez du hirugarren baten bermerik, eta, beraz, inbertitutako kapitala eta errentagarritasuna ez daude bermatuta. Fondoaren errentagarritasun objektiboak ez ditu inbertitzaileak inflazioaren efektutik babesten mugaegunera arte, eta, beraz, errentagarritasun erreala (hau da, inflazioa kenduta) txikiagoa edo negatiboa izan daiteke. Partaidetzen balioak aldaketa nabarmena izan dezake balorazioaren lehen egunean

(2024/12/14), merkaturatze-aldian zehar fondoak ez duelako bere eragiketen zati bat baloratuko.

Fondo hau aholkularitza-zerbitzu ez-independentearen pean banatzen da, eta aldeaz aurretik egokitasun-testa egin behar da.

Zein da jarritako diruaren eskuragarritasuna?

Kutxabank Horizonte 23 IF Fondoa edozein unetan berreskura daiteke merkatuko prezioan. Mugaeguna baino lehen egindako errenbaltso orok %2ko komisioa izango du, berariaz aurreikusitako datan agintzen ez bada: 2025/04/30, 2025/10/31 eta 2026/04/30. Egun baliodun bat lehenago abisatu behar da.

Fondoak errenta finkoan egindako inbertsioek galerak izango lituzkete interes-tasek igotzen badute. Beraz, mugaeguna baino lehen egindako errenbaltsoek galerak ekar diezazkiokete inbertitzaileari.

Inbertsio Fondoaren fiskalitatea

Zerga-ordainketari dagokionez, dirua berreskuratzen den unean ordaintzen da zerga. Inbertsioa, mugaeguneratutakoan, fondoetan mantentzen bada, ez da gainbalioa gauzatuko eta zerga-ordainketa geroratuko da. Etorkizuneko errendimendua, hala badagokio, inbertitzaile bakoitzaren egoera pertsonalaren arabera fiskalitateari lotuta egongo litzateke, eta etorkizunean alda daiteke.



Inbertsio Fondoa

Kutxabank EF Horizonte 23 IF

Produktuaren fitxa

MUGAEGUNA	2026/10/31
INBERTSIOEN HASIERA	2024/12/13
KONTRATAZIOAREN GUTXIENENKO ZENBATEKOA	100€
EPEA	23 hilabete inguru
MIFID ARRIKSUA	Ertaina
KUDEAKETA KOMISIOA	%0,52 urtean ondarearen gainean (2024/12/13ra arte %0,15ekoa izango da)
GORDAILU KOMISIOA	%0,04 urtean ondarearen gainean (2024/12/13ra arte %0,01ekoa izango da)
BESTE GASTU BATZUK	%0,02 (auditoretza, banku-zerbitzuak)
HARPIDETZA KOMISIOA	%5 2024/12/14tik 2026/10/30era
ERRENBOLTSOAGATIKO KOMISIOA	%2 2024/12/14tik aurrera, hori barne, edo fondoak 320 milioi euroko ondarea lortzen duenetik 2026/10/30era arte (hori barne). Bolumen hori lortzen denean, CNMV-Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalari jakinaraziko zaio, gertakari garrantzitsu gisa.

Kutxabankek fondoaren kudeaketa-komisioaren %60ko pizgarria jasoko du Kutxabank Gestión SGIC, SAUren eskutik, aholkularitza-zerbitzu ez-independentea emateagatik (kontratu aurreko fitxan jasotzen den bezala)

Errendimendu objektiboaren grafikoa



Kutxabank 23 IF Fondoaren errentagarritasun aurreikusi eta bermatu gabearen helburua da mugaegunean fondoak hasierako inbertsioaren %102,79 eskuratzea. %1,47ko UTB bermatu gabea.

Aurreikuspen horiek ez dira etorkizuneko emaitzen adierazle fidagarria.



Inbertsio Fondoa

Kutxabank EF Horizonte 23 IF

KUTXABANK EF HORIZONTE 23, IF (ISIN kodea: ES0148906003). Fondoak CNMVn duen erregistro-zenbakia: 5907. Fondo ez harmonizatua. Fondoaren kudeatzailea KUTXABANK GESTIÓN, SGIIC, SA da. (Talde kudeatzailea: KUTXABANK) Depositario CECABANK SA (Alcala kalea 27, 28014 Madril. IFZ: A86436011)

Arriskuak



ARRISKURIK TXIKIAGO

ARRISKURIK HANDIAGO



ARRISKU ADIERAZLE HONEK KONTUAN HARTU DU ZUK PRODUKTUAREKIN MUGAEGUNERA ARTE JARRAITUKO DUZULA.

Inbertsio-fondo honek, besteak beste, arrisku hauek ditu:

- Tasek gora egiten dutenean, fondoaren zorroko errenta finkoko baloreek balioa galtzen dute, merkatuen eskaria jaulkipen berrietara aldatuko delako, interes handiagoak eskaintzen dituztelako. Eta alderantziz tasak behera egiten badute.

- Kreditu-arriskua edo kontrako alderdia: jaulkitzaileak (enpresak, finantza-erakundeak edo Estatuak, besteak beste) bere ordainketei aurre egin ezin izateko edo ordainketak atzeratzeko aukera da.

- Bestalde, finantza-tresna deribatuetan inbertitzen duten fondoek (etorkizunekoak, aukerak, etab.) arrisku handiagoa izan dezakete produktu horien berezko ezaugarriak direla eta (adibidez, palanka-efektua). Beraz, baliteke zorroaren galerak ugaritzea, baina irabaziaz ere biderkatu egin daitezke. Hala ere, kontuan izan behar da fondo batzuek batez ere eskurako zorroaren (estaldura) arriskuak murrizteko erabiltzen dituztela deribatuak; liburuxkan jasotzen den inbertsio-politikaren deskribapenean, deribatuak inbertsiorako edo estaldurarako erabiliko diren adierazten da.

- Kontzentrazio geografikoaren arriskua: Inbertsioen zati handi bat herrialde bakar batean edo herrialde kopuru mugatu batean kontzentratzeak herrialde horien baldintza ekonomiko, politiko eta sozialek inbertsioaren errentagarritasunean eragin handia izateko arriskua onartzea eragiten du.

Hala eta guztiz ere, errenboltso aurreratuaren unean galera esanguratsuak gerta daitezke. Inbertsioa alde aurretik kentzen bada, kapitala galtzeko arriskua handitzen da.

Informazio-dokumentu hutsa, gomendioa ez dena. Dokumentu honek ez du fondoaren legezko informazioan jasotakoa ordezkatzen, ezta aldatzen ere. Desadostasunik izanez gero ondoko hau kontuan hartuko da. Inbertsioa egin aurretik, inbertitzailearentzat eskuragarri dauden funtsezko datuak biltzen dituen liburuxka osoa eta dokumentua kontsultatu CNMVn, Gestorian eta www.kutxabankgestion.es helbidean

